

Norvegiako aditu talde batek baieztatu du mugikorrak eta wifi-sareak seguruak direla osasunerako

Ez dago inolako frogarik esateko mugikorrak eta wifi-sareak kaltegarriak direla osasunerako. Hori ondorioztatu du Norvegiako Aditu Batzordeak, gobernuaren eskariz egindako ikerketaren emaitzak aztertuta.

Osasun-zerbitzuetako eta garraio eta komunikazioetako zenbait aditu eta ikertzailek osatu dute Batzordea, Jan Alexander Norvegiako Osasun Saileko zuzendari nagusiordearen zuzendaritzapean.

Azterketan, Aditu Batzordeak aintzat hartu ditu maiztasun txikiko erradiazio elektromagnetikoa igortzen duten teknologia ohikoenak, hau da, telefono mugikorrak, wifi-sareak, mugikorraren antenak, ikus-entzunezkoen antenak eta beste komunikazio-tresnak. Horiek guztiak osasunean izan dezaketen eragina aztertzeaz gain, osasun-arriskuen kudeaketari eta araudiari buruzko aholkuak ere eman ditu Batzordeak.



Mugikorrak ez direla osasunerako arriskutsuak ondorioztatu du Norvegiako Aditu Batzordeak. ARG.: DANIEL SOLABARRIETA/ELHUYAR FUNDAZIOA.

Gaiari buruz egin den ikerketa sakonenetakoa eta berriena da, eta aurretik beste ikerketa handiek esandakoa berretsi du, alegia, teknologia horiek osasunari kalte egiten diotela erakusten duen froga bakar bat ere ez dagoela. Are gehiago, txostenaren arabera, “zentzuzko ziurtasunez” esan daiteke ez direla arriskutsuak osasunerako.

Bestalde, Aditu Batzordeak araudiak ere aztertu ditu, eta hor ere kezka guztiak uxatu ditu: batetik, ICNIRPk (Erradiazio Ez-ionizatzailatik Babesteko Nazioarteko Batzordeak) ezarritako segurtasun-mugak nahikoak direla iritzi diote, eta, bestetik, ikusi dute erradiazioa igortzen duten teknologiek potentzia baimendua baino askoz ere txikiagoa erabiltzen dutela. ●



Gazteberri aldizkariaren aplikazioa laister zure esku

